

Batzorde Paritarioaren bilera: Jarraitzen dugu akordiorik gabe zorraren ordainketaz

1.-Lan-Poltsa.

-Poltsan izena eman ez duten ikastetxeek aste honetan jasoko dute aurreko bileran adostu zen oharra. Bertan egoteko derrigorrezkotasuna gogoratzeaz gain, hori egin ezean salatzeko asmoa adieraziko zaie. Patronal ezberdinetan ez dauden ikastetxeek ere jasoko dute.

-Poltsan hautagaien garbiketa egin ondoren, 200 bat izen gelditzen dira, gehienak Hezkuntza Laguntzako Espezialistak. Ibaigane ikastetxeko 20 bat langile ere badaude. Hautagaiek beste korreo bat jasoko dute bere egoera behar bezala jar dezaten poltsan, hainbat akats detektatu direlako.

2.-Zorraren kudeaketa.

Akordiorako urratsak eman badira ere, oraindik ez dago proposamen zehatzik mahai gainean. Eztatanda bi ardatzen inguruan burutzen ari da:

-Akordio Transakzionalak urteroko kalkulua egiteko erabili behar dituen irizpideak.

-Aurten eman diren egoera bereziak (2015eko azken lauhilabetean ere ordezkapenatarako laguntzak igo ziren, harreman laborala apurtua duten langileen zor osoaren kitapena eta 2012an kobratzekoa zen diruaren erabilpena Hitzarmena lehenago indarrean jarri ahal izateko) nola interpretatu kalkulu horretan.

Datorren astelehenean (ekainaren 6an) beste bilera bat egongo da gaiarekin jarraitzeko, baina -itxura guztien arabera- ia ezinezkoa izango da ekaineko nominarekin batera atzerapenak kobratzea. Izan ere, beste gauzen artean bermatzen duen prozesua gauzatzeko, ordezkari sindikalen parte-hartzea ezinbestekoa izango delako.

3.-Bizkaiko ikastetxearen deskuelgea.

Batzorde Paritariak markatu zuen ibilbideari jarraiki bilera egin zen enpresa eta bertan ordezkariak sindikala duten bi sindikatuen artean. Horren ondorioz proposamen bat atera zen eta langileen asanbladari aurkeztuko zaio. Babesa izatekotan, ikastetxeak ez luke deskuelge osorik egingo.

Oharra:

Hitzarmena Interpretatzeko Batzorde Mistoak eguneratu egin ditu bere garaian Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak %95ean ekipartzeko sinatu genuen akordioa. Langile hauek ekaineko nominan kobratuko dituzte hainbat atzerapen (soldata baten %25). Atzerapen horiek bere garaian langile publikoei Gabonetako soldata kendu izanak sortu zituen eta kantitate hauek kobratutakoan oraindik soldata baten %50 egongo da kobratzeke.

Irakaskuntzan steilas

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus